

NAFARROAKO GOBERNUKO KONTSEILARIEN KARGU-HARTZE EKITALDIA

2019ko abuztuaren 7a

Parlamentuko Presidente, Gobernu ordezkaria, kontseilariak, kargua utzi duen gobernua, agintariak, gonbidatuak, senideak, egunon guztiei.

Kontseilari maiteak, talde maitea. Gaur, buru izateko ohorea eta erantzukizuna dudana Nafarroako Gobernu berriaren parte bilakatu zarete modu ofizialean.

Bertze ezer baino lehen, eskerrik asko pausoa emateagatik, Nafarroa foralarekin, berritzailearekin, berdintasunaren eta bizikidetzaren aldeko apustua egiten duenarekin, konpromisoa erakutsi nahi duen proiektuaren parte izateagatik, gure funtsaren parte den aniztasunaren barruan. Aurrera begiratzen duen eta egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egingen dien Nafarroa, premiazko gaiei arreta emanen diena, baina etorkizuna ere planifikatuko duena, begirada luzearekin. Izan ere, gaurko arazoetan pentsatu behar dugu, premietan, baina baita biharko egunari eta hurrengo hamarkadari aurre nola egin ere.

Koalizio gobernu baten parte gara. Politika publikoetarako begirada aberasten duten talde desberdinen arteko gobernua. Baina, batez ere, ordezkatzeko dugun eta gure lanaren eta egitekoen hartzaile den gizartearen nahiko antzekoa. Errespetua eta entzutea eskatzen digun gizarte anitza delako.

Ordu asko igaroko ditugu elkarrekin eta, ondorioz, pazientzia eskatzen dizuet, une gogorak igaroko ditugulako, horrelakoa da kudeaketa publikoa. Baina ziur naiz une pozgarriak ere partekatuko ditugula. Eta denon artean jendearen bizitza hobetzeko gai bagara, esfortzuak eta ematen ari garen pausoak merezi izanen dute.

Batzuek baduzue esperientzia aurreko gobernuan eta, ondorioz, oso lagungarriak izanen zarete besteok egunean jartzeko eta ahalik eta azkarren lanean hasi gaitzen. Eta aurretik bizitza publikoan esperientziarik ez duzuenei, argi dagoena erran behar dizuet, hemen, denok, egunero ikasteko gaudela, elkarri laguntzeko, eta legealdiko programarako akordioa den tresna bikain horrekin lan egiteko. Beraz, hori beti mahai gainean izatea eskatzen dizuet, erabakiak hartzeko, bai. Baina baita bultzada gisa erabiltzeko ere, zailtasunak datozenean. Orduan, irakurri eta pentsa ezazue egin ditzakegun gauza on guztietan. Eta horrek energia eta indarra emanen dizue, hasieran ditugun konbikzio eta ilusio berberekin lanean jarraitzeko.

Gobernuan egoteko aurrera pausoa ematen dugunok gureganatzen dugun konpromiso hori gehien jasaten duen eta gutxien ikusten den aldeari zuzenduriko hitz batzuk esateko baimena eskatzen dizuet. Gure familiak. Gure gain hartzen dugun erantzukizunak ideiak eskatzen ditu, bai. Konpromisoa, baita ere. Eta denbora ere eskatzen du. Denbora asko. Gure bikoteei, seme-alabei, gurasoei, aiton-amonei eta adiskideei kentzen diegun denbora, alegia.

Beraiek ere proiektu honen alde garrantzitsua dira. Ia inoiz ez dugu era publikoan erakundeen buru garenon giza alderdi horri buruz hitz egiten, baina ez dut politika eta erantzukizun publikoa giza alderdi horri gabe ulertzen. Bizitza bat daukagun pertsonak garelako, eta bizitza hori zaintzea beharrezkoa delako gure onena eman ahal izateko, politika publikoak kudeatzeko, erabaki garrantzitsuak hartzeko lan handi honetan. Horregatik, gu zuekin gutxiago egotea, gure tentsioak... jasanen dituzuenei, eta hori pazientziaz, maitasunez eta ulermenez eginenduzuenei, eskerrik asko. Lagunduz, erronka eta erantzukizuna ulertzen dituzuelako, eta ezinbesteko euskarria zaretelako.

Eskerrik asko, baita ere, langile publikoei, proiektu honen ezinbesteko bertze alderdi bati. Beraiei esker haurrek hezkuntza hobea jasotzen dute, ospitaleak beti daude prest, izapideak kudeatzen dira eta gure segurtasuna zaindurik dago. Hainbeste funtziotik eta hainbeste tokitik administrazio publikoak funtzionatzea lortzen dutenak dira.

Kontseilariak, nafarren zerbitzura dagoen egitura handitik ikusiko den aurpegia izanen gara, eta, gure erabakiekin eta gure kudeaketarekin, zerbitzu onena eman behar dugu, beti ere bikaintasunera heltzeko xedez.

Eskerrik asko, zorionak, zortea, lana eta konbikzioa.

Eskerrik asko.